

## Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

**Aintzane Ezenarro Egurbide Aralar** taldeko bozeramaileak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, **Iñigo Lamarka Arartekoaren AGERRALDIA** eskatzen du, Erakunde, Herrizaingo eta Justizia batzordearen aurrean, "Hondarribiko Alarde Mistoaren ibilbidea aldatzeko erabakia dela eta".

### **ZIOA:**

Herrizaingo sailak Jaizkibel konpainia mistoari Hondarribiko alardearen ohiko ibilbidea eta ordutegia aldatu dizkiola. Erabaki horren kontra agertu da Arartekoa eta hori dela eta, aurretik eskatutako agerraldiei (irailaren 2an egindakoak) Arartekoarena gehitzea eskatzen du, iritzi guztien berri izan dezagun legebiltzarreko taldeek.

### **AGERRALDI ESKAERA:**

**Iñigo Lamarka Arartekoaren AGERRALDIA** eskatzen du, Erakunde, Herrizaingo eta Justizia batzordearen aurrean, Hondarribiko Alarde Mistoaren ibilbidea aldatzeko aginduaren aurrean bere iritzia berri eman dezan.

**Gasteizen, 2011ko irailaren 7an**

**Aintzane Ezenarro Egurbide**

Aralar taldeko bozeramailea